

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

8. zenbakia

Data 2006-01-12

877 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

**Abenduaren 27ko 599 Bis/2005 Foru Agindua, jokuaren zerga banku-
helbideratzearen bidez sarrera egiteko prozedura ezartzeari buruzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

Abenduaren 27ko 599 Bis/2005 FORU AGINDUA, makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den jokoaren gaineko zergaren ordainketa bankuan helbideratzeko prozedura ezartzen duena.

Otsailaren 1eko 1/2005 FORU ARAUAK, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendu behar diren joko jarduerak zergapetzen ditu Gipuzkoan gauzatzeak direnean.

Foru arau horrek 3. artikuluan xedatzen duenez, besteak beste, makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen diren joko jarduerak baimendu, antolatu edo egiteak eratzen du Jokoaren gaineko Zergaren zerga-gaia; 5. artikuluan jasotzen duenez, bestalde, bidezko baimen administratiboa jaso duten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak dira zerga horren subjektu pasiboak.

12. artikulua dio zorizko jokoetarako balio duten makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatutako jokoetan, kuota finko bat exijituko dela makina edo aparatu bakoitzeko.

Aipatutako foru arauak 16. artikuluan jasotakoaren arabera, Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek zerga horrengatik arauz ezartzen diren aitorpenak aurkezteko obligazioa dute. Aitorpen hori aurkeztean zerga zorra zehaztu beharko dute, eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak kasu bakoitzerako ezartzen dituen toki, modu eta epeetan ordaindu.

Abenduaren 21eko 1.330/2001 FORU AGINDUAK hainbat eredu onartu zituen zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko zerga aitortu eta likidatzeko, eta horien artean 044 eredu, jolas edo zorizko makinekin egindako zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko Tasa Fiskala autolikidatzekoa. Era berean, foru agindu horrek ezarri zuen 044 eredu Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu behar dela, hain zuzen ere, Ondare Eskualdaketan eta Joko Tasaren Atalean, eta hari dagokion zenbatekoa hiru hilean behin ordaindu martxo, ekain, irail eta abenduko lehen hogeita bost egun naturalen barruan. Ordainketa hori Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean egin beharko da (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

Hori hala izanik ere, interesgarri jo da zerga horretatik ateratzen diren kuoten ordainketa erraztea ordaindu beharreko kuotak bankuan helbideratuz. Bada, horretarako beharrezkoa da eredu bat onartzea ordainketa modalitate horretan interesatuta dauden zergapekoek helbideraketa hori eskatu dezaten.

Gauzak horrela, otsailaren 1eko 1/2005 FORU ARAUAK, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, 16. artikuluan ematen didan ahalmenaz baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Kuoten helbideratzea eskatzea.

1. Makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den jokoaren gaineko zergaren subjektu pasiboek hala eskatzen badute, kuotak helbideratze bankarioz ordaintzeko prozedurara bildu ahal izango dira, foru agindu honetan ezartzen diren baldintzekin.

2. Ordainketa prozedura hau aukeratzen bada, eskaera hau aurkezteko unean subjektu pasiboak dituen baimen guztiak helbideratze bankarioari lotuta geratuko dira.

2. artikulua. 44D eredua onartzea.

1. Onarturik geratzen da foru agindu honetako Eranskinean ageri den 44D eredua, makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den Jokoaren gaineko Zergaren helbideratze bankarioa eskatzekoa.

2. 44D eredua baliagarria izango da makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den Jokoaren gaineko Zerga helbideratze bankarioz ordaintzea eskatzeko.

3. artikulua. 44D eredua aurkezteko tokia eta epea.

1. 44D eredua Fiskaliterako eta Finantzarako Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu beharko da, Ondare Eskualdaketen, Egintza Juridiko Dokumentatuen eta Joko Tasaren Atalean.

2. Helbideratze prozeduran alta hartzeko eskaera 44D ereduaren bidez aurkezteko epea honako hau izango da:

a) Helbideratzeak urte naturaleko lehen hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, eskaera otsailaren 20tik martxoaren 5a bitartean aurkeztuko da.

b) Helbideratzeak urte naturaleko bigarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, eskaera maiatzaren 20tik ekainaren 5a bitartean aurkeztuko da.

c) Helbideratzeak urte naturaleko hirugarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, eskaera abuztuaren 20tik irailaren 5a bitartean aurkeztuko da.

d) Helbideratzeak urte naturaleko laugarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, eskaera azaroaren 20tik abenduaren 5a bitartean aurkeztuko da.

Alta ematen denetik aurrerako epealdietan, eta aldaketarik jakinarazten ez den artean, zergadunak adierazitako baimenen zerrendari dagokion jokoaren gaineko zergaren kalkulutik ateratzen den hiruhileko kuota berak aukeratutako kontuan kargatuko da.

3. Helbideratu beharreko baimenen zerrendan aldaketaren bat gertatzen bada, aldatzeko eskaera aldaketa gertatzen den hiruhilekoetan aurkeztuko da, hain zuzen, martxo, ekain, irail edo abenduko lehen 15 egunetan.

4.Zergadunak adierazten badu zerga kargatzeko aukeratu duen kontu bankarioa aldatu nahi duela, aldaketa jakinarazi behar dio Ondare Eskualdaketan, Egintza Juridiko Dokumentatuen eta Joko Tasaren Atalari 44D eredia aurkeztuta. Jakinarazpen horrek eragina izan dezan bai dagokion hiruhilekoan eta bai hurrengoetan, 44D eredia aurreko 3 apartatuan aurreikusitako epe berdinetan aurkeztuko da.

5.Zergadunak helbideratze bankarioaren prozedura utzi nahi badu, baja jakinarazi beharko du 44D eredia aurkeztuta. Jakinarazpen horrek eragina izan dezan bai dagokion hiruhilekoan eta bai hurrengoetan, 44D eredia aurreko 3 apartatuan aurreikusitako epe berdinetan aurkeztuko da.

4. artikulua.Epez kanpo aurkeztutako eskaerak.

Foru agindu honen 3.3 artikuluan ezarritako aurkezpen epea behin igarota alta ematen diren baimenak ez dira helbideratuko aurkezten diren hiruhilekoan. Baimen horiek 004 ereduaren prozedura orokorrari jarraiki autolikidatuko dira, nahiz eta horrek ez duen eragotziko hurrengo hiruhilekoan helbideratzea dagokion epean eskatu ahal izatea.

5. artikulua.Ordainketaren frogagiria.

Zenbatekoa behin kontuan kargatu ondoren, finantza entitateak hiruhileko ordainketa egin izanaren frogagiria bidaliko dio zergadunari, gutxienez honako datuok adierazita:

Ekitaldia.

Hiruhilekoa.

Baimen kopurua, B eta C motakoak.

Epealdiko kuota.

Epealdiko errekargua.

6. artikulua.

1.Hiruhileko ordainketaren zenbatekoa zergadunak aukeratutako kontu bankarioan kargatzea zenbateko horren autolikidaziotzat hartuko da ondorio guztietarako.

2.Kobratzeko aurkezten diren hiruhileko ordainketak entitate laguntzaileak errefusatzan dituenean, horiek autolikidatu edo ordaindu gabe geratu direla ulertuko da ondorio guztietarako.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2005eko abenduaren 27a.—Juan José Mujika Aginagalde, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatua.

(9482) (228)



